16. grafikoan azaltzen da zenbat igo den ezkontzarako batezbesteko adina 1976tik. Gorago esan denez, ezkontza mota gorabehera, jaiotza gehienak (%75) gurasoak ezkontuta daudela gertatzen dira, beraz, zenbat eta gehiago atzeratu ezkontzeko adina, zaharragotan jaioko da lehen haurra. Bestetik, nahiz eta bizikideen bikote asko ofizialki ezkontzen diren emakumea haurdun geratu orduko, ezkontzatik kanpoko amatasunaren eta aitasunaren hazkuntza dela-eta ugalkortasuna aztertzean ezin da ezkontza-tasa hartu hurbilketazko aldagai gisa, lehenago baliagarria izan bazen ere. Esanak esan, ezkontzen hazkuntza nabarmen gutxitu da, duela hiru hamarkadako tasaren erdiraino ia.

Bikote ezkondu tradizionalaren aldaketak ohiko gaia dira familia eta famili nukleoak ikertzean, eragina dutelako bai elkartzeen iraukortasunean baita elkartze motetan ere. Elkarrekin bizi direnen bikotea, adibidez, ohiko etxe nuklearraren oinarria izan da, baina ez da elkartze bakarra aukeran, eta gainera, gaur ez ditu zertan eduki duela hamarkada batzuk zeuzkan ezaugarri berberak. Beck, Giddens, Cheal eta beste hainbat adituk diotenez, lehenengo arauak, norbanakoari nola jokatu behar zuen adierazten ziotenek, pisua galdu dute, eta garrantzia hartuz doaz, haien ordez, «biografia hautatuak», gizakiari aukeratzeko askatasuna eman ez ezik, horretara behartu ere egiten dutenak (Beck eta Beck-Gernsheim, 2004). Horrek harremanetara dakarren berdintasun nahiagatik, negoziazioa funtsezko tresna bihurtzen da bikotean, eta elkartzeak, bestalde, ahulagoak eta ezegonkorragoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan argia da elkartzeen ahultasun hori, eta hala frogatzen du dibortzio eta banantzeek azken urteotan duten goranzko joerak. Hari beretik, gero eta ohikoagoak dira bestelako elkartze modu batzuk, esaterako izatezko elkartzeak, bikote esperientzia izan dutenen artekoak edo elkarrekin bizi ez diren bikoteak ere bai.

Horietako lehenak, izatezko elkartzeak, asko hazi dira azken urteotan, 1996-2001 bitartean ezkongabeek eraturako bikoteek %27,5 egin baitute gora (ikus 17. grafikoa). Dena den, datu horiei duten garrantzia eman behar zaie, Euskal Autonomia Erkidegoan bizikidetza gutxiengo baten aukera delako oraindik, eta izan ere, gaur egun famili nukleoen %2,8 dira bakarrik (16.322 bikote gutxi gorabehera).

Euskal Autonomia Erkidegoan bizikideen bikote horietako asko «proban» dauden ezkontzak dira, azkenean elkartze ofizial moduan eratzen direlako, eta horixe erakusten du ez-



Iturria: Eustat. Egileak sortua.
Fuente: Eustat. Elaboración propia.

chas uniones de cohabitación se traten en realidad de matrimonios a prueba se puede comprobar a partir de la estrecha relación entre matrimonio y reproducción, como lo demuestra el que tan sólo el 16,4% de esas parejas tienen hijos/as. La aparición de la descendencia hace que la mayor parte de las parejas de hecho decidan convertirse en uniones «legales» posiblemente con el objetivo de dar una mayor solidez legal y simbólica a la relación. Así, el que una pareja esté casada o no, influye de manera significativa en la probabilidad de tener el primer hijo. Sin embargo, el efecto del tipo de unión se disipa una vez que ya ha aparecido el primer hijo/a, porque a partir de la primera criatura el estado civil no influye en la probabilidad de tener el segundo hijo/a.

El carácter a «prueba» de las uniones de cohabitación lo muestra la evolución de su frecuencia por edad y su tendencia a la disminución a medida que aumenta la edad. A pesar de que la información de la que partimos es limitada, la evolución de la curva de cohabitación del gráfico anterior sugiere que esta tendencia está también presente en la C.A. de Euskadi, ya que tanto en 1991 como en 2001 desciende la proporción de mujeres cohabitantes, a partir del grupo de edad de 30-34 años.

kontzearen eta ugaltzearen arteko erlazio estuak, hizpide ditugun bikoteetatik %16,4k baino ez dituzte-eta haurrak. Ondorena etorri orduko, izatezko bikote gehienak «legezko elkartze» bihurtzen dira, beharbada harremana legeen bidez eta sinbolikoki sendoagotzeko. Hartara, bikotekideak ezkondata egoteak edo ezkongabe jarraitzeak badu eraginik lehen haurra jaiotzeko probabilitatean. Baina era berean, lehen haurra edukiz gero, elkartze motaren ondorioak lausoagoak dira, hots, lehen haurraren ondoren egoera zibilak ez du bigarrena edukitzeko probabilitatean eragiten.

Bizikidetzazko bikoteak «probako» elkartzeak direlako argi geratzen da adinaren arabera duten bilakaeratik, adina igo ahala behera egiten dute eta. Behar beste informazio ez daukagun arren, aurreko grafikoko bizikidetzaren kurbak aditzera ematen digu joera hori Euskal Autonomia Erkidegoan ere agertu dela, bai 1991n bai 2001ean emakume bizikideen kopurua jaisten delako 30-34 urteko taldeetik aurrera.

6. ¿CÓMO VIVIMOS? HOGARES Y TIPO DE NÚCLEOS FAMILIARES EN LA C.A. DE EUSKADI

La mayoría de nosotros vive en un hogar, en un tipo de familia que tiende a diferir, cada vez más, del tipo de familia de los demás; por eso, el análisis de la institución familiar presenta una complejidad asociada a su diversidad y a su localización que significa un reto metodológico en las Ciencias Sociales. Por eso, el estudio de la familia se ve reducido al único elemento cuantificable para su análisis, que es el de tipo de núcleo familiar relacionado con la cohabitación en el mismo hogar. Estadísticamente hablando, la familia queda, así, reducida al núcleo o núcleos familiares en la misma vivienda, separada del resto de parientes próximos con los que las personas de cada núcleo mantienen, en muchos casos, intensos lazos de afectividad, solidaridad e intercambio. La asimilación del concepto «familia» al de núcleo familiar presenta problemas de análisis irresolubles, porque de la clasificación de los diferentes tipos de núcleos familiares poco o nada se puede inferir sobre la dinámica de la organización familiar o sobre la calidad o la intensidad de la vida en familia, así como tampoco sobre lo que individualmente experimentamos a diario, es decir, nuestras propias familias. Aún así, la reducción de la institución familiar al hogar, al núcleo familiar, también presenta una gran ventaja: como indicador cuantificable, de su evolución podemos inferir las tendencias que sirven de referencia para el inicio de un análisis descriptivo, aunque limitado, de la institución familiar.

Así, en estos últimos años, los núcleos familiares han sido testigos de una serie de transformaciones significativas que abarcan tanto al tamaño como al número y estructura de los diferentes tipos de hogares. De ello se puede deducir que las relaciones entre los componentes de la familia también se han visto afectadas. En la siguiente tabla se puede apreciar la intensidad de la evolución de los núcleos familiares durante los 20 años anteriores a la celebración del último Censo (2001).

La tabla 4 nos indica que el tipo de núcleo familiar mayoritario de las últimas décadas ha sido y sigue siendo el formado por una pareja con hijos, la llamada familia nuclear, aunque su peso haya ido disminuyendo sistemáticamente a lo largo del tiempo. En los últimos veinte años la frecuencia de hoga-

6. NOLA BIZI GARA? ETXE ETA FAMILI NUKLEO MOTAK EUSKAL AEn

Gehienok bizi garen etxe eta familia mota gero eta aldendua-go dago besteen familietatik. Familien aniztasun horrek eta haien kokapenak berak ere zailagoa egiten dute, bada, instituzioa aztertzea Gizarte Zientzien metodologiarekin. Horregatik, familiaren ikerketek etxe bereko bizikideek osatzen duten famili nukleoari erreparatu ohi diote, familiaren alderdi zenbakarri bakarra delako. Beraz, estatistikaren aldetik soilik jotzen dira familiazat etxe bereko famili nukleoa edo nukleoak, ahaide hurbilak aintzat hartu gabe, nahiz eta askotan nukleo bakoitzeko kideek afektibitate, elkartasun eta elkartruke lotura sendoak eduki haiekin. «Familia» kontzeptua eta famili nukleoarena baliokidetze horrek arazo konponezinak sortzen ditu azterbiderako, famili nukleoa mota desberdinetan sailkatuz ezer gutxi ondorioztatu daitekeelako –are ezertxo ere ez- familiaren antolaeraz, haren baitako bizitzaren kalitateaz edo intentsitateaz edo gutako norberak egunerokoan bizitzen dugunaz, geure familiez, alegia. Hala ere, familia instituzioa etxeko esparrura murrizteak badu abantaila handi bat, adierazle zenbakarria denez gero haren bilakaerak dauden joeren berri ematen digulako, eta hor erreferentzia bat daukagu familia instituzioaren azterketa deskriptiboari ekiteko.

Azken urteotan aldaketa esanguratsuak izan dira famili nukleoetan, hala tamainaren aldetik nola mota bakoitzeko etxe kopuruari eta egiturari dagokienez, eta pentsatzekoa da horrek eragina izan duela familiako kideen arteko harremanetan ere. Hurrengo taulan ikusten da nolakoa izan den famili nukleo bilakaera 2001eko azken Zentsuaren aurreko 20 urteetan.

4. taulako datuen arabera, azken hamarkadetan familia nuklearra, hau da, haurrak dauzkan bikotea, famili nukleo nagusia izan da, eta hala jarraitzen du, denborarekin pisua galdu badu ere. Azken hogeitau urteetan bikote batek eta bere haurrek osatutako etxeak 1981ean baino %30 gutxiago dira,

Evolución de los núcleos familiares, en la C.A. de Euskadi (%)

4

Famili nukleoen bilakaera Euskal AEn (%)

	1981	1986	1991	1996	2001
Pertsona bakarrekia / Unipersonal	7,7	8,4	11,7	15,4	20,3
Konposatua / Compuesta	3,4	2,5	2,8	2,9	3,4
Nuklearra seme-alabarik gabe / Nuclear sin hijos/as	15,1	13,9	15,8	16,8	18,5
Nuklearra seme-alabekin / Nuclear con hijos/as	62,9	63,4	57,2	51,5	44,4
Guraso bakarra (aita) / Monoparental padre	1,1	1,2	1,5	1,8	2,2
Guraso bakarra (ama) / Monoparental madre	5,9	7,1	7,8	9	8,6
Nukleo anitzekoa / Polinuclear	3,9	3,6	3,3	2,7	1,7
Batez besteko famili tamaina / Tamaño familiar medio	3,69	3,5	3,33	3,07	2,78

Iturria: Eustat (1981, 1991 eta 2001eko Zentsuak. 1986 eta 1996ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak). Egileak sortua.
Fuente: Eustat (Censos 1981, 1991 y 2001. Estadística de Población y Vivienda 1986 y 1996). Elaboración propia.

res formados por una pareja con hijos ha pasado a representar casi un 30% menos de lo que suponían en 1981 (del 62,9% al 44,4%). Una caída de más de siete puntos por quinquenio que ha sido especialmente acusada en el periodo 1991-2001 cuando el volumen de estos hogares descendió en 29.086 familias, dos tercios de las cuales se han perdido en los últimos cinco años.

Asimismo, el tamaño medio de la familia nuclear, también, se ha reducido con el tiempo, disminuyendo en más de una persona por hogar al pasar de una media de 4,4 personas en 1981 a 4,1 en 1991 y, finalmente, a 2,9 en 2001. Este hecho se ha resuelto a favor, fundamentalmente, del grupo de personas que viven solas o que se inscriben como tales, pasando a representar una quinta parte (el 20,3%) de todos los núcleos familiares en el año 2001. A éstos habría que sumar los núcleos formados por parejas solas o monoparentales, resultado éstos últimos, además de la viudedad, de la ruptura progresiva de las uniones de pareja.

La disminución más importante en el tamaño medio de las familias se han producido, fundamentalmente en los diez últimos años del análisis, cuando es más del doble el número de personas que viven solas, y pasan a suponer de 73.648 personas/núcleo en 1991 a 151.855 personas/núcleo en el año 2001, aumentando su peso en más de 10 puntos porcentuales. Dos son los rasgos que caracterizan a este grupo de personas que viven solas. Por una parte, el sexo, ya que la mayoría de este grupo, el 59%, está formado por mujeres, si bien la proporción de hogares unipersonales formados por hombres ha ascendido de un 34 al 41% entre 1991 y 2001. Y, por otra parte, la relación con la actividad, ya que el 41% de estas personas se define como inactivo, lo cual nos liga la intensidad del proceso de envejecimiento a ese aumento significativo de los núcleos unipersonales.

En el otro extremo, los hogares formados por núcleos compuestos de personas sin ningún lazo familiar ni de pareja, recuperan en 2001 el peso que ya tuvieron a principios de la década de los 80, el 3,4%. Su pequeño peso y su oscilación parecen indicar inestabilidad, quizá debido a su posición como «núcleo de paso» entre otras formas familiares, en una era de movilidad laboral y de progresiva ruptura y reconstitución de núcleos familiares con motivo de la separación y el divorcio. Así, tras un breve descenso de 1981 a 1986, a partir de ese año recuperan paulatinamente su peso.

Por otra parte, los núcleos formados por parejas sin descendencia, mantiene una progresión estable moderada al alza con una frecuencia superior al 18% del total de núcleos. La bajada de la natalidad y el retraso en la edad de reproducción se relacionan directamente con la potenciación de las uniones de pareja en detrimento de las nucleares con hijos/as. Sin embargo, el aumento experimentado por este tipo de núcleos entre 1996-2001, podría ser explicado por otro fenómeno como es la llegada a la edad de emancipación de las generaciones del *baby boom*, momento en el que las familias nucleares con hijos pasan a la fase de «nidos vacíos», de vuelta a la posición de pareja sola con la decohabitación de los hijos de la familia de origen.

Especial atención merece la evolución de los núcleos monoparentales, ya sean encabezadas por mujeres o por hombres, al haber pasado a representar más de una de cada diez familias de la C.A. de Euskadi (el 11,7%, es decir, 87.880 familias). Este aumento está siendo especialmente importante

%62,9tik %44,4ra jaitsita. Bosturteko batetik besterako gale-
ra, bada, zazpi puntutik gorakoa izan da, are nabarmenagoa
1991-2001 aldian, orduan mota horretako 29.086 etxe desa-
gertu zirelako, haietako bi heren azken bost urteetan.

Familia nuklearren batezbesteko tamainak ere behera egin du, 1981ean etxea osatzen zuten 4,4 pertsonak 4,1 zirelako 1991n, eta 2,9 2001ean, beraz, pertsona bat baino gehiago galdu da etxeke. Horrekin alderaturik, igo dira –batez ere– bakarrik bizi diren pertsonak edo beren burua halakotzat inskribatu dutenak, 2001erako famili nukleoen bostena (%20,3) ziren eta. Gehitu behar zaizkie, gainera, bikote hutsek osatutako nukleoak eta –gero eta maizago– guraso bakar bat dutenak, hauen artean ez daudelako bakarrik alargun bat buru duten nukleoak, baizik bikote deseginen ondorio direnak ere bai.

Familien batezbesteko tamaina murriztu da, batez ere, aztertutako azken hamar urteetan, tarte horretan %10 igo baita bakarrik bizi direnen kopurua, bi aldiz baino gehiago haziz (73.648 pertsona/núcleo 1991n eta 151.855 2001ean). Bakarrik bizi direnen taldeak bi bereizgarri ditu: bata sexua da, haietako gehienak (%59) emakumeak direlako, egia bada ere gizon batek osatutako etxe kopurua %34tik %41era pasatu dela 1991-2001 bitartean; beste ezaugarri nagusia jardueran datza, pertsona horietako %41ek jarduera gabetzat aitortzen baitute beren burua, eta horrek iradokitzen digu zahartze prozesuak eragina izan duela –eta ez azalekoa– pertsona bateko nukleoen gorakadan.

Beste muturreko etxeak, famili edo bikote loturarik ez duten pertsonak osatutakoak, 80ko hamarkadaren hasieran zeukaten mailara itzuli dira, 2001ean %3,4ra iritsita. Kopuru txiki eta aldakorra da, beharbada nukleo ezegonkorrek edo «behin-behinekoak» direlako, familia mota batetik besterako bidean nonbait, hein batez langileen mugikortasunaren garaian gaudelako, eta bestetik, banantze eta dibortzioen ondorioz gero eta famili nukleo gehiago desegiten eta berretzen direlako. Hartara, 1981-1986 bitarteko sakonune laburraren ondoren lehengo pisua berreskuratzen ari dira.

Ondorenik gabeko bikoteek eratutako nukleoei dagokienez, gorantz doaz poliki eta etengabe, eta egun nukleo guztien %18 baino gehiago dira. Jaiotza-tasaren jaitsierak eta ugaltzeko adinaren atzeratzeak erlazio zuzena dute bikote hutsen gorantzko joeran, haurrak dituzten elkartzeko nuklearren kaltean. Hala ere, baliteke biko nukleo horiek 1996-2001 tartean izan duten igoera beste fenomeno baten ondorioa izatea, alegia, *baby boom*eko belaunaldiak emantzipazio adinera iristean haien lehengo familia nuklearrak, beharbada, «kabi hutseko» egoeran sartu dira, berriz ere haurrik gabeko bikote bilakatuak.

Benetan deigarria da nolako bilakaera izan duten, Euskal Autonomia Erkidegoan, aita edo ama guraso bakarra daukaten familiek, egun hamar familiatik bat baino gehiago dira eta (%11,7, hau da, 87.880 familia). Atentzioa ematen du, batez ere, gizona guraso bakarra duten familien hazkuntzak, baina

en el caso de las familias monoparentales encabezadas por hombres, no por su peso –mucho menor al de las encabezadas por mujeres– sino por estar experimentando un ritmo de progresión al alza mucho mayor, de manera que mientras que en el periodo 1996-2001 los primeros aumentaron en un 33,5%, las segundas lo hicieron en un 16,8% en el mismo periodo. Finalmente, las familias polinucleares, formadas por la cohabitación de varios núcleos completos de familiares emparentados, continúan un descenso que les ha hecho perder más de la mitad del peso que tenían en 1981, pasando a representar tan sólo el 1,7% del total de familias vascas.

La dinámica de los tipos de familias refleja un cambio añadido que se traduce en una disminución de su tamaño pasando de 3,7 personas a 2,8 personas por núcleo en este periodo de 20 años. Esta evolución de tipos de núcleos y de tamaño familiar ha sido interpretada como parte de un proceso estructural relacionado con recambios en las expectativas y en los valores sociales, así como con los espectaculares aumentos en la cantidad y calidad de vida experimentados en el último tercio del siglo XX. Estos cambios que afectan también a las demás parcelas de la realidad social pueden, así mismo, ser interpretados en relación con otra serie de transformaciones socio-demográficas y los cambios relativos a la estructura de edades.

ez kopuruagatik –emakumea buru dutena baino askoz gutxiago dira– askoz arinago hazten ari direlako baizik. Izan ere, gizona buru dutenak %33,5 ugaldtu ziren 1996-2001 bitartean, eta besteak, ordea, %16,8. Azkenik, nukleo anitzeko familiek, alegia, elkarrekin ahaidetutako famili nukleo osoek eraturakoek, beheraka jarraitzen dute, eta 1981ean zuten pisuaren erdia galdua, orain euskal familien %1,7 baino ez dira.


Familia mota desberdinak tamainaz ere aldatu dira, 20 urte hauetan nukleoen batezbestekoa 3,7 pertsonatik 2,8ra gutxitu baita. Nukleoen eraketaren eta kide kopuruaren bilakera egiturazko prozesu baten ezaugarritzat hartu izan da, bi fenomeno orokorragoen haritik: batetik gizartearen itxaropen eta balioetan izandako aldaketak, eta bestetik, bizialdia- ren eta bizi kalitatearen hazkunde ikaragarria, XX. mendearen azken herenean. Bai nukleoen aldaketak baita horrek beste gizarte esparruetan duen eragina ere bestelako eraldaketa soziodemografikoen haritik uler daitezke, eta horien artetik esanguratsuenetako bat adinen egituraren gertatutakoa da.

Forma de convivencia familiar según edad, en la C.A. de Euskadi. (%)

18

Famili bizikidetzak motak adinaren arabera. (%)

2001



Iturria: Eustat. Inkesta Demografikoa 2002. Egileak sortua.
Fuente: Eustat. Encuesta Demográfica 2002. Elaboración propia.

Tal y como indican los gráficos 18, 19 y 20, la situación familiar de las personas difiere significativamente según su edad⁴ al estar directamente relacionada con su ciclo de vida. De manera que en un corto espacio de tiempo –digamos, diez años– un núcleo formado por una pareja sin hijos, puede pa-

Beheko 18, 19 eta 20. grafikoetan ikusten denez, norbanakoen famili egoera oso desberdina da adinaren arabera⁴, hau da, guztiz kontuan hartu beharrekoa da norberaren bizi-zikloak. Hala, bada, denbora tarte labur batean –hamar urtetan, adibidez– haurrik gabeko bikote batek era desberdineko nu-

⁴ Hay que tener en cuenta que al tomar como referencia el total de personas en vez del total de familias, los gráficos no se pueden comparar con la tabla 4, que sobrerrepresenta las familias de mayor extensión a expensas de las de menor extensión.

⁴ Kontuan eduki behar da familia kopuru osoaren ordez pertsonena hartu dela erreferentzia gisa, beraz, grafikoak ezin dira 4. taularekin erkatu, bertan familia handiak txikiak baino ordezkatuagoak daudelako.

sar desde una fase de familia nuclear con hijos, a una fase nuclear monoparental para llegar, una de las personas de la pareja, a convertirse en unipersonal como paso previo a una familia reconstituida. En este sentido, una visión puntual de los núcleos familiares puede inducir a error sobre la dinámica evolutiva de las diversas formas de vida familiar que se experimenta en cada ciclo de vida, sin que estas variaciones, muchas veces temporales, tengan por qué ser un reflejo directo de situaciones de fragilidad, abandono o debilidad de la red familiar.

La descomposición de los tipos de núcleos por grupo de edad que indica el gráfico 18 muestra claramente esta aseveración. La edad aparece fuertemente relacionada con la formación de núcleos unipersonales y su aumento se debe claramente al proceso de viudedad asociado al envejecimiento y no tanto a que este tipo de familias se haya convertido en una alternativa clara a la familia nuclear por descohabitación del hogar de origen. La desagregación de los núcleos monoparentales por edad presenta una situación similar, aunque de mucha menor intensidad.

Por otra parte, el aumento de los núcleos ampliados con personas mayores de 75 años sugiere la creciente adopción, en los hogares nucleares, de familiares ancianos a partir de su viudedad o del inicio de procesos de dependencia física. Hasta ahora apenas se ha contabilizado el impacto de la inclusión de personas mayores dependientes en la vida en común de las unidades familiares. Sin embargo, ya comienzan a aparecer algunos estudios que analizan aspectos como la repercusión en la calidad de vida y de salud de las personas que se responsabilicen del cuidado en la familia (Larrañaga y col. 2006).

kleoak eratu litzake, haurrak dauzkan familia nuklearretik guraso bakarrek nukleora pasatuz eta, bikoteko kideetako bat pertsona bakarrek nukleo bilakatuz gero, familia berreratzeraino iritsiz. Hortaz, famili nukleoak une jakin batean bakarrik aztertzen badira, bizitzako ziklo bakoitzean izaten diren famili bizitza motek izaten duten eboluzioari buruzko ikuspegi okerra eragin dezake. Gainera, aldaketa horiek, maiz iraupen mugatukoek, ez dute zertan izan famili sare ahul edo hauskor baten ondorioa, ezta familia abandonatu baten emaitza ere.

Nukleo motak adinaren arabera bereiziz gero (18. grafikoa) goikoa ezbairik gabe egiaztatzen da, agerian geratzen baita adinak eragin zuzena duela pertsona bakarrek nukleoak sortzean, eta horien hazkuntzaren arrazoi nagusia alargundutako zahar jendea dela, beraz, ezin jo daiteke gauza segurutzat horrelako familiak familia nuklearra utzi dutenek eratuak direnik, ezta hura zalantzarik gabe ordezkatuak direnik ere. Guraso bakarrek nukleoak adinaren arabera aztertzean antzeko egoera azaltzen zaigu, baina intentsitate gutxiagorekin.

Bestalde, 75 urtetik gorako pertsonekin handitutako nukleoak gehitu egin dira eta horrek erakusten du gero eta sarriago hartzen direla adineko senideak famili nuklearretan alargundu direnean edo menpekotasun fisikoa dutenean. Orain arte ez da kontuan hartu zenbaiteraino eragina duen familien bizimoduan besteren beharra duten adinekoak hartzea; alabaina, oraintxu egindako azterlan batzuetan dagoneko aztertu dira familiako zaintza bere gain hartzen duten pertsonen bizi-kalitatearen eta osasunaren gaineko eragina (Larrañaga eta lag. 2006).

Proporción de personas que viven en hogares unipersonales y en una familia monoparental materna, según estado civil, en la C.A. de Euskadi


19-20

Pertsona bakarrek etxeak eta guraso bakarra amaduten familietako kideak, egoera zibilaren arabera proporzioak Euskal AEn

2001

Ama guraso bakarra duten familietako kideen proporzioa, adinaren eta egoera zibilaren arabera

Proporción de personas que viven en una familia monoparental materna por edad y estado civil




Ezkongabea
Soltero/a

Alarguna
Viudo/a

Dibortziatua/banandua
Divorciado/a separado/a

Pertsona bakarrek familietan bizi direnen proporzioa, adinaren eta egoera zibilaren arabera

Proporción de personas que viven en familias unipersonales por edad y estado civil



Iturria: Eustat. Inkesta Demografikoa 2002. Egileak sortua.
Fuente: Eustat. Encuesta Demográfica 2002. Elaboración propia.

Así, la monoparentalidad, gráfico 20, aumenta significativamente con la edad, producto de la separación y del divorcio, o por decisión de tener hijos –propios u adoptados– y formar una familia en solitario sin pareja, característico de formaciones familiares a edades tardías, además de por situación de viudedad. Los datos indican que el tipo de núcleo familiar más común, el formado por la pareja con hijos, es generalizado en las franjas de edad inferiores a los 50 años, viéndose sustituido a partir de esa edad, progresivamente, por formas de familia que, salvo en el caso de las polinucleares, van a significar la disminución drástica del número de personas que conforman el núcleo familiar.

Dada la progresiva concentración de personas mayores y ancianas que viven solas, la Administración Pública ha prestado gran atención a la evolución de este tipo de núcleos unipersonales en los últimos tiempos. Aunque el incremento de la capacidad de autonomía física y económica de las personas mayores es un hecho incontestable, también lo es la concentración de personas dependientes en la última fase de su vida, sobre todo a partir de los 85 años. El continuo alargamiento de la vida no necesariamente ha supuesto un alargamiento similar en la capacidad de autonomía personal en la misma progresión, por lo que la vida en solitario en edades avanzadas y en situación de dependencia revierte las ventajas asociadas a la autonomía personal de la primera fase de la ancianidad.

La proporción de personas que viven solas aumenta de importancia, sobre todo en las edades avanzadas donde prácticamente una de cada tres personas mayores de 65 años se encuentran en esta situación. En este sentido, la popular relación que se establece entre crecimiento de los hogares unipersonales y la emancipación del hogar familiar a edades jóvenes no se cumple, ya que estos casos sólo representan el 5% del total de personas que viven solas.

Por otra parte, la importancia de las familias monoparentales también aumenta con la edad, sobre todo a partir de los 50-55 años. En este tipo de hogares resulta importante conocer cuál es la causa de esta monoparentalidad dado que su significado social difiere de manera significativa. La monoparentalidad puede ser tanto el resultado de una decisión individual de tener descendencia sin formar parte de una unión de pareja, como producto de una separación o divorcio y, también, por viudedad. En el caso de las mujeres de Euzkadi, tal y como muestra el gráfico 20, la monoparentalidad es en la mayoría de los casos producto de la muerte del cónyuge, que se produce en mayor medida a partir de los 60 años y, en menor medida, como consecuencia de un divorcio.

De esta forma, podemos señalar que en el caso vasco, para el análisis de los modelos familiares, además de tener en consideración los cambios más estructurales relacionados con los valores sociofamiliares, debemos de tener en cuenta otros factores sociodemográficos como el envejecimiento o el retraso en la emancipación. Este último fenómeno también genera una mayor heterogeneidad, pues mientras que el 25% de los que se encuentran entre 25 y 29 años ha abandonado ya el hogar paterno, una proporción similar todavía no lo ha hecho en el intervalo de 35 a 39 años, lo que provoca que en el intervalo de edad de 30 a 34 años la proporción de personas que vive con sus padres sea similar a la que ya ha formado su propia familia nuclear con hijos/as.

Hala, bada, adinak gora egin ahala, gehiago dira guraso bakarrek familiak (20. grafikoa), dela bikotekideak banandu edo dibortziatu direlako, dela pertsona batek haurrak eduki edo adoptatzea erabaki duelako eta bikotekiderik gabe familia bat eratu duelako. Alargunen kasuan bezala, horrelako familiak adinean aurrera sortu ohi dira. Datuen arabera, famili nukleorik behinena, bikoteak eta bere haurrek osatutakoa, nagusi da 50 urtetik beherako adin tarteetan, baina hortik gora arruntagoak dira, haren orde, beste familia mota batzuk, nukleo anitzekoen kasuan izan ezik askoz kide gutxiagoak.

Azken garaiotan Administrazio Publikoa arreta handiagoa jarzen ari da adinekoek edo zaharrek osatzen duten pertsona bakarrek nukleoetan, gora baitoa egoera horretan bizi direnen kopurua. Egia da adinekoek –oro har– hobera egin dutela gaitasun fisikoan eta diru baliabideen aldetik, baina ez dago zalantzarik, halaber, gero eta gehiago direla bizitzaren azken aldian besteren beharra duten zaharrak, batik bat 85 urtetik gorakoan artean, bizialdia etengabe luzatu den arren ez delako hein berean hazi pertsonen beregaintasuna. Hartara, bakarka eta besteren beharrean bizi direnen adin handikoek ezin dute gozatu zahartzaroaren hasierako buruaskitasuna.

Bakarrik bizi direnen kopurua handia da, batik bat, zahartzaroan, 65 urtetik gorakoan artean ia hirutik bat bizi baita horrela. Ez da betetzen, horrenbestez, aski zabaldua den uste bat, pertsona bakarrekoez etxe kopurua eta familiaren etxetik emantzipatutako gazteena bateratsu hazten direlako, alegia. Izan ere, gazte horiek bakarrik bizi diren pertsonen %5 baino ez dira.

Adinarekin hazten da, orobat, guraso bakarrek familien garrantzia, batez ere 50-55 urtetik aurrera. Mota honetako etxei dagokienez, argigarria da jakitea zergatik sortu diren, haien adierazgarritasuna oso desberdina delako pertsona batek bere ondorena bikotekiderik gabe edukitzea erabaki badu, arrazoia dibortzioa edo banantzea izan bada edo nukleoa alarguntzearen ondorioa izan denean. Hurrengo grafikoa adierazten denez, Euskadin, 60 urtetik gora, guraso bakarrik diren emakume gehienak hala daude alargundu direlako, eta gutxiago dira egoera horretara dibortzioaren ondorioz iritsi direnak.

Esan daiteke, beraz, Euskadiko familia ereduak aztertzerakoan aintzat hartu behar ditugula balio soziofamiliarrek ekarri dituzten egiturazko aldaketak, baina ez dira ahantzi behar, era berean, beste eragile soziodemografiko batzuk, adibidez zahartze prozesua eta emantzipazio berantiarra. Bigarren fenomeno horrek askotarikoagoa egiten du egoera, 25-29 urte bitartekoen %25ek gurasoen etxea utzi duten arren, 30-39 adin tartekoen %25ek ez dutelako oraindik egin, eta 30-34 urte beteta gurasoekin bizi direnak familia nuklearra sortu eta haurrak eduki dituztenak adina dira.

7. ¿CÓMO VIVIMOS, CÓMO MORIMOS? LA EVOLUCIÓN DE LA ESPERANZA DE VIDA Y DE LA MORTALIDAD

Tal como se ha indicado en las páginas anteriores, el comportamiento demográfico de la C.A. de Euskadi ha cambiado radicalmente en el último siglo. Sin duda, el descenso de la mortalidad ha sido uno de los rasgos característicos de la transición demográfica de las sociedades modernas y los cambios en las condiciones de vida y salud de la población se sitúan en el centro de ese proceso de transformación. El descenso mantenido de las tasas de mortalidad a lo largo del siglo XX ha hecho posible que actualmente la población vasca disfrute de una expectativa de vida de las más altas de Europa.

7. NOLA BIZI GARA? NOLA HILTZEN GARA? BIZI-ITXAROPENAREN ETA HERIOTZA-TASAREN BILAKAERA


Arestian esan denez, azken mendean Euskal Autonomia Erkidegoko demografia zeharo aldatu da. Ezbairik gabe, gizarte modernoetan heriotza-tasa murrizak trantsizio demografikoaren ezaugarrietako bat dira, eta bilakaera horrek oinarrietako bat du bizi- eta osasun-baldintzetan izandako aldaketa. Gurean, heriotza-tasak etengabe apaldu dira XX. mendean, eta gaur egun, euskal herritarren bizi-itxaropena Europako handienetakoa da.

Esperanza de vida al nacer en países europeos y en la C.A. de Euskadi

21

Bizi-itxaropena jaiotzean. Europako herrialdeetako eta Euskal AEko datuak

2003



Iturria: INE, 2003. Egileak sortua.

Fuente: INE, 2003. Elaboración propia.

Sin embargo, en los últimos 12 años, el número de defunciones que se han producido en la C.A. de Euskadi, al igual que las tasas de mortalidad (fallecimientos por mil habitantes), no han dejado de crecer porque a este aumento ha contribuido el envejecimiento demográfico experimentado por la población vasca desde los años 80. Aunque parezca paradójico, el aumento en el número de defunciones se da a la vez que el incremento de la longevidad media de la población vasca. Es decir, el envejecimiento demográfico es el resultado de la reducción de la mortalidad en periodos precedentes, a la vez que la causa del actual aumento de las defunciones en edades avanzadas, al aumentar, progresivamente, el número de personas en edades más proclives a la muerte.

La caída de la mortalidad y su impacto en la esperanza de vida se observa con mayor claridad cuando se controla el efecto del envejecimiento a través de la estandarización de las tasas por edad. Así, los datos de la tabla 5 nos muestran

Hala ere, Euskal EAko heriotza kopuruak eta heriotza-tasak (heriotzak mila biztanleko) gora egin dute azken 12 urtean. Hala da demografikoki euskal biztanleria zahartu egin delako 80ko hamarkadatik, eta bitxia gerta badaiteke ere, euskal gizartean aldi berekoak dira heriotza kopuruaren igoera eta batezbesteko bizitzaren luzatzea. Hortaz, zahartze demografikoaren kausa heriotza-tasak aurreko garaietan murriztu izana da, eta haren ondorioa, ordea, zaharretako heriotza kopuruak orain gora egitea, gero eta biztanle gehiago iristen direlako heriotza arrisku handiko adinetara.

Heriotza-tasaren jaitsiera eta horrek bizi-itxaropenean daukan ondorioak errazago ikusten dira heriotza-tasak adin tartera estandarizatzen baditugu. Izan ere, 5. taulako datuek adierazte digute heriotza-tasa %22 inguru jaitsi dela aztergai

que la intensidad de la mortalidad ha descendido en torno al 22% en los doce años analizados. Esta disminución no se produce de manera homogénea al persistir el diferencial de supervivencia entre mujeres y hombres, que probablemente irá disminuyendo en el futuro con la entrada en la ancianidad de generaciones de mujeres con pautas de comportamiento sociolaboral –y por tanto, riesgos de supervivencia– similares al masculino.

ditugun hamabi urteetan. Gutxitze hori ez da homogenea izan gizon eta emakumeetan, baina ziur asko horretara joko da gizonenak bezalako gizarte- eta lan-bizimodua duten emakumeak zahartzarora iristen direnean, orduan haien bizi-raute maila ere gizonenaren pare egongo delako.

Evolución de las defunciones y de las tasas de mortalidad en la C.A. de Euskadi

5

Heriotza kopuruaren eta tasen bilakaera Euskal AEn

	1991	1996	2001	2003	1991-2003 bitarteko aldaketa (%) (%) cambio 1991-2003
Gizonak / Hombres					
Heriotza kopurua / Defunciones	9.269	9.702	9.670	10.050	+8,4
Tasa gordina / Tasa bruta*	8,96	9,45	9,50	9,91	+10,6
Tasa estandarizata / Tasa estandarizada**	9,93	8,97	7,84	7,78	-21,7
Haurren heriotza-tasa / Tasa mortalidad infantil***	7,66	6,51	3,93	3,30	-56,9
Emakumeak / Mujeres					
Heriotza kopurua / Defunciones	7.497	8.329	8.417	9.255	+23,4
Tasa gordina / Tasa bruta*	7,00	7,77	7,91	8,72	+24,5
Tasa estandarizata / Tasa estandarizada**	5,02	4,59	3,93	4,76	-5,18
Haurren heriotza-tasa / Tasa mortalidad infantil***	5,59	5,48	2,83	3,10	-44,5
Guztira / Total					
Heriotza kopurua / Defunciones	16.766	18.031	18.087	19.305	+15,1
Tasa gordina / Tasa bruta*	7,96	8,59	8,69	9,30	+16,8
Tasa estandarizata / Tasa estandarizada**	7,13	6,49	5,62	5,68	-20,3
Haurren heriotza-tasa / Tasa mortalidad infantil***	6,66	6,00	3,40	3,20	-52,0

(*) eta (**) tasak: mila biztanleko. (***) Tasa: adinaren arabera estandarizata Europako biztanleria estandarrekin. (***) Tasa: bizirik jaiotakoak (milako). (*) y (**) Tasa por mil habitantes. (**) Estandarizada por edad de la población europea estándar. (***) Tasa por mil nacidos vivos.

Iturria: García-Calabuig MA., Larrañaga I., Muniozguren N.; eta Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua. Osasun Saila.



Fuente: García-Calabuig MA., Larrañaga I., Muniozguren N.; y Servicio de Registros e Información Sanitaria. Departamento de Sanidad.

En esta evolución de control de la mortalidad, mención especial merece el comportamiento de la mortalidad infantil (tabla 5), el indicador por excelencia de la calidad de vida y salud de una población. La mortalidad infantil, siendo reducida en 1991 ha descendido en más del 50% en el periodo 1991-2003, de 7,5 por mil a 3,2 por mil nacidos vivos, alcanzado en 2003 valores mínimos.

Por otra parte, la reducción de la intensidad de la mortalidad en este periodo queda reflejada en el gráfico 22. La probabilidad de morir ha descendido en todas las edades y en ambos sexos entre 1991 y 2003, pero esta reducción ha sido notoria en el caso de los hombres, particularmente en las edades menores de 40 años, y de mayor intensidad que en el caso de las mujeres de la misma edad. Este hecho podría estar relacionado con la disminución de actividades de riesgo laboral y de ocio en los hombres jóvenes a lo que también se sumarían los avances experimentados en la tecnología médico-sanitaria en este periodo.

5. taulan heriotza-tasari egindako behaketan aipatzeko modukoa da haurren heriotza-tasa, horixe delako biztanleen bizi eta osasun kalitatearen adierazle nagusia. Bada, heriotza-tasa hau, 1991n jada txikia, %50 baino gehiago jaitzi da 1991tik 2003ra, tarte horretan heriotza kopurua 7,5etik 3,2ra gutxitu baitzen –bizirik jaiotako 1000ko– eta behea jo zuen 2003an.

22. grafikoak ere heriotza-tasak tarte horretan izandako jai-tsieraren berri ematen digu. 1991tik 2003ra, hiltzeko probabilitateak behera egin du adin guztietan eta sexu batekoetan zein bestekoetan, baina murrizketa nabarmenagoa izan da gizonetan emakumeetan baino, batez ere 40 urtetik behera-koen artean. Horren arrazoia litzateke, batetik, arriskuko lan-jarduerak eta aisiakoak gutxitu direla gizon gazteen artean, eta bestetik, osasun eta medikuntza teknologiak urte horietan izandako aurrerapenak.



Iturria: Egileak sortua.

Fuente: Elaboración propia.

Paralelamente, la esperanza de vida al nacer refleja más nítidamente la disminución del riesgo de morir en los últimos años. Desde 1991 a 2003 la expectativa de vida al nacer ha aumentado en 4,2 años pero, tal como refleja la tabla 5, la ganancia en los hombres es el doble del logrado por las mujeres (incremento de 5,5 y 2,3 años, respectivamente). Aunque la mortalidad diferencial por sexo sigue siendo uno de los rasgos característicos de este fenómeno, la uniformidad de los estilos de vida en las generaciones jóvenes y la exposición

Jaiotza uneko bizi-itxaropenak argiago adierazten du zenbat murriztu den heriotza arriskua azken urteetan. 1991tik 2003ra bitartean jaiotza uneko bizi-itxaropena 4,2 urte igo da, eta 5. taulan ageri bezala, igoera hori bi aldiz handiagoa da gizonetan emakumeetan baino (5,5 eta 2,3 urte gehiago hurrenez hurren). Heriotza-tasen arteko aldea, bada, adierazle honen bereizgarrietako bat da oraindik ere, baina datuek iradokitzen dutenaren arabera, azken urteotan emakumeen eta gizonen tasek elkarrengana jotzen dute, belaunaldi gaztee-

Evolución de la esperanza de vida al nacer y a edades exactas, en la C.A. de Euskadi

6

Bizi-itxaropena jaiotzean eta zenbait adinetan. Euskal AE

	1991	1996	2001	2003	1991-2003 bitarteko aldaketa (%) (% cambio) 1991-2003
Gizonak / Hombres					
e_0	72,78	74,30	76,58	76,78	5,5
e_{40}	35,88	36,98	38,18	38,17	6,4
e_{65}	15,24	16,00	16,93	17,07	12,0
e_{80}	6,75	7,15	7,61	7,25	7,4
Emakumeak / Mujeres					
e_0	81,55	82,49	84,33	83,91	2,3
e_{40}	43,01	44,00	45,22	44,80	4,2
e_{65}	20,02	20,85	21,99	21,67	8,2
